

LIBURUTEGIEN Euskal Sistema

Honako buletin informatiboan Euskadiko Irakurketa Publiko Sareak 2012. urtean burutu-tako jardueren berri ematen da. Honekin batera, aipatu ekintzak aurrera atera ahal izateko, gure liburutegi publikoetako profesionalek egindako lan anonimoa azpimarratu nahiko nuke. Beren dedikaziorik gabe ezin izango litzateke eskaini kalitatezko liburutegi zerbitzu publikorik.

Liburutegi publikoek gaur egungo gizartean funtsezko zerbitzua eskaintzen dute: herritarrei informaziora eta kulturara dohako sarerra erraztea, aukeren berdintasuna sustatuz eta pertsonak bete-betean garatzea lagunduz. Liburutegiek, era berean, lan edo eskolaren eta familiaren arteko hirugarren gune bat osatzen dute; pertsonen bizi guztiko ikasketan eta aisian eta ezagutzaren gizartearen garapenean ezinbestekoa dena.

Gizarteari gertatzen ari zaion bezalaxe, liburutegiak ere mundu analogikoa eta digitala elkarrekin bizi diren aldaketa prozesu baten daude murgildurik. Inguru berri honetan, liburutegi publikoek funtsezko papera jokatu dute, ez bakarrik edukien gordeleku gisa baizik eta formatu digitalean hedatzen diren edukiak eskura jartzeko eragile gisa ere.

Aldaketa egoera honetan, lehentasunezko lan ildo bat gaurkotasan handiko liburu katalogoa eskaintzea izango da; behin-behineko on-line mailegua eta doakoa izango dena. Honako eskaintza osatzeko, Liburukliken bidez jaso daitezkeen ustiapenik gabeko liburu digitalen bilduma egongo da, arian-arian aberastuz joango dena. Kontua da pertsona orok geroz eta eskaintza handiagoa duten eduki digitalak doan eskuragarri izatea, edozein euskarri eta sistema eragiletan egonik ere.

Halaber, irakurzaletasuna sustatzeko ekimenak bultzatzen jarraituko dugu, irakurketa klubak, bereiziki. Honekin batera, liburuzain profesionalen kolektiboaren birziklatzea eta pres-takuntza laguntzen jarraituko dugu, Euskadiko Irakurketa Sare Publikoko aktiborik oinarritu-koena osatzen baitute.

Sarean lan egiteko garaiak dira, kudeaketa partekatua eta instituzioen arteko lankidetz-a eskatzen dutenak. Kulturarako eta informaziorako sarbidea eraldatzen ari diren aldaketa teknologikoen ere bide horretik garamatzate. Horretara behartzen gaitu ere bizi dugun egoera ekonomiko eta sozialak, kudeaketa publikoko eredu eraginkorrak eta jasanga-riak eskatzen baititu.

Imanol Agote Alberro
Kultura Ondarearen zuzendaria

“Euskal diaspora” Ondarenet-en

Euskal diasporak, proiektu digital honen bere sorreran azaldutako izaera bera mantentzen du: euskal kulturaren zaintza eta hedapena bermatzea. Euskal gizataldeek izandako leku orotan gure nortasun arrasto guztiak bere horretan mantentzea lortu dute, eta honekin batera, belaunaldiz belaunaldi transmititzea ere.

Euskal etxeak, basque clubak, euskal zen-troak, euskal gizataldeak, eta abar gure



kulturaren babeserako eta zabalkunderako oso gune garrantzitsuak izan dira, horietan, hainbat jai, erakusketa, hitzaldi, ikastaro... antolatu baitira.

[Interesgune](#) berri honen bidez, Euskal Herritik kanpo dauden gizatalde hauek egiten dituzten arlo ezberdinetako (kultura, hezkuntza, artea, hizkuntza,...) adierazpen guztiak bilduko ditugu [Ondarenet](#)-en, beraien webak artxibatze eta zabaltzeko asmoz.

Literatura solasaldiak Arrasaten: Irakurlearen trebakuntzaz



2001eko udazkenean hasi ginen antolatzen Arrasaten Literatura Solasaldiak, hainbat liburutegitan Irakurle Klubak bezala ezagunak direnak. Urte hauetan joan-etorri batzuk izan ditugu parte-hartzaile, koordinatzaile eta idazle gonbidatuen aldetik. Ez da guztiakin hori gertatu ordea, irakurle batzuk hasieratik dauzkagu solaskide, ikasturtero Solasaldiei tokia egin baitiete beraien bizitzan. 2012-2013ko denboraldiaren hasierako saioan, partaide

batek emozioz aipatu zuen berak bi aldiz ikasi duela irakurtzen: lehenengoz txikitik eskolan eta bigarrenez 60 urterekin Solasaldietan.

Bai, Solasaldietan liburuez hitz egiten baino irakurtzen ikasten da. Literatura ez da zerbait lineala, ez da argumentoa soilik eta kontatzen den istorioez gain dagoena denborarekin antzematen ikasten da. Irakurketan sakontzen den neurrian, testuaz bere osotasunean jabetzen da irakurle trebatua eta orduan bakarrik espazio berri bat sortzen da, non idazle eta irakurlearen artean benetako elkarrizketa ematen den.

Irakurtzea interpretatzea bada, taldekideen irakurketa anitzak amankomunean jartzerakoan testuak ulergarriagoak egiten dira. Ez da erraza izaten berriz, talde baten aurrean iritzia ematea eta horrela partaide batzuk entzutea nahiago dute hasieran, baina oso zaila denez zerbait esateko daukazunean ixilik egotea, egun batean dardar apur bateaz ahots berri bat entzuten da bileran, eta horrela aurrerapauso txiki horrekin taldearen dinamikan uztartzea lortzen da eta benetako parte hartzea.

Betidanik Arrasaten bi talde izan ditugu: euskarazkoa eta gaztelaniazkoa, gaztelaniazkoa jendetsuagoa, euskarazkoa jantziagoa; guztira 50 bat pertsona dira hilero ekintza honetara hurbiltzen direnak.


Solasaldiek balio erantsia izaten dute idazlea gonbidatua izaten denean eta sortzaileak idazketa prozesua taldearekin partekatzen duenean. Une magikoak izaten dira horiek eta ezin ahaztu

Arrasaten izan ditugun gertuko idazleen bisita batzuk, besteak beste, Jokin Muñoz, Juanjo Ollasagarre, Anjel Lertxundi, Mariasun Landa, Iban Zaldua, Harkaitz Cano...


Gehienetan narratiba izaten da irakurgai, baina hainbatetan poesian ere murgildu gara: Gil de Biedma, Luis Cernuda, Carmelo C. Iribarren, Rikardo Arregi... eta azken urteotan Komikiek eta Zineak tokia izan dute gure Solasaldietako programazioan. Halaber irudien bidez istorioak kontatzen dira eta irudiak interpretatzea irakurtzea ere bada.

Liburutegiek dauzkaten funtzioen artean funtsezkoena da irakurleak trebatzea eta irakurketa literarioak bultzatzea, literatura espazio zabala eta aberasgarria baita, liburu salduenetatik edo best-sellerretatik haratago dagoena.

Mertxe Perez de Ciriza
Arrasateko Udal Biblioteka



Eresbileko euskal musikagileen partiturak Liburukliken



2012an lehen aldiz, ERESBIL-ek idatzizko musikako titulu kopuru txikia eskaini dio Liburuklik-eri, Euskal Liburu Digitalaren baitan XIX. Mendeko euskal herriko musika autore aipagarrienen lanak jasoak egoteko helburuarekin.

Publikoak guztira 267 partitura eskuragarri ditu, horietatik 234 XIX. mendean editatu diren partiturak dira eta 33 1930-a baino lehenago editatu zirenak.



Generoei dagokionean, ganbera generoa da hobe ordezkatzen dena, pianorako 92 obra daude, eta ahots eta pianorako 89 abesti. Jarraian erlijio musika doa, 35 obrekina eta ostean koru musika 27 izenbururekin. Musika dramatikoko 9 titulu daude. Organoko musikako 7 obra daude, musika instrumentaleko 4 eta azkenik 4 metodo. Azken genero honetako obra kontsultatu daiteke: Mateo Antonio Pérez de Abéniz maisuaren Instrucción metódica, expeculativa y práctica, para enseñar a cantar y tañer la música moderna y antigua. Bera, Donostiako kaperako maisua izan zen eta Antonio Undaino Inprentan editatu zen 1802an. Gipuzkoan editatu den musika lanik zaharrena da.

Autoreei dagokionean, Juan Crisostomo Arriagaren Erminia obra ikus daiteke, Aurelio Artetaren azal edertez hornitua dagoena. Nafar

autoreei dagokionean, Felipe Gorritiren hain ezagunak ez diren obrak ikus daitezke, Elena mazurka edo Himno a los Fueros esate baterako. Joaquin Gaztambideren zarzuela aipagarri batzuk ere ikus daitezke, bai eta Joaquin Larreglaren saloiko pianorako musika. Sebastian Iradier arabarraren habanera abestiak ere ikus daitezke, oso ezaguna den La Paloma esate baterako.

Lira Sacro-Hispana bildumaren 10 bolumenak aipagarria dira, Hilarion Eslava nafar musikagileak 1852 eta 1860 urteetan zehar editatu zituenak. Bilduma hau, XVI eta XIX. mendeetako erlijio musikako abestien hautaketa bat da.

Colección de Aires Vascongados bilduma ere aipagarria da, Donostian 1862tik aurrera publikatu zena. Euskal herrian egindako musika tradizionalako bilduma garrantzitsuenetakoa da, ahots eta pianorako harmonizatutako 80 abestiz osatua dagoena.

Publikora eskuragarri jarri diren partiturak Euskal Herriko musika argitaletxe nagusien adierazgarriak dira. Partitura gehienak Donostiako Santesteban argitaletxearenak dira, lehen aipatutako bildumaren egileak, 76 partiturekin. Jarraian Bilboko Dotesio etxearen 20 partitura daude. Argitaletxe honek, Bilboko kaperako maisua izan zen Nicolás Ledesmanen obra guztia editatu zuen.

Donostiako Díaz y Cia, eta Iruñako Ripalda etxeen 11 partitura jarri ditugu. Egun oraindik ere martxan jarraitzen duen Casa Ervitiren 10 partitura ere badaude. Oso ezaguna den argitaletxe honek musika erlijiosoa, bai eta banda edo bere garaiko herri musika argitaratzen zuen, “Prendete del Aeroplano” argentinarrango tangoa adibidez.

Iruñako Arilla argitaletxea edo Tolosako Euskal Musikako argitaletxearen lanak aurki daitezke.

ERESBILen ditugun materialen aurkezpen modukoa da orain eskuragarri jarri duguna, eta etorkizunean kopuru gehiago zintzilikatzea espero dugu, ez soilik partitura formatuan, baita idatzizko testu eta soinuuzko grabazio moduan ere. Partitura edo soinuuzko grabazioen bildumari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ERESBILen katalogoa kontsultatu daiteke [honako helbidean](#).

Euskal Herriko disko eta partituren edizioaren bilakaerari buruzko bi web orriak ere ikus daitezke:

[Euskal Herriko Musika Argitaletxeak \(XV mendea – 1950\).](#)

[Euskal Herriko etxe eta zigilu diskografikoak \(ca. 1898 – 2000\).](#)

*Jon Bagües
Eresbilgo zuzendaria*

Gure hizkuntzak ikasteko materiala Eibarko eta Hernaniko udal liburutegietan

2012. urtean zehar, Eibarko eta Hernaniko udal liburutegietan, hemengo hizkuntzak ikasteko gunea hobetzeko eta erabilera sustatzeko, Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuak antolatzen duen Munduko Paisaiak kanpainaz baliatu gara.

Abiapuntua

Udal liburutegietan hizkuntzak ikasteko baliabideak betidanik izan dira.

Hizkuntzaren atala, ikasleek, bidaiariak, edo lanerako beste hizkuntza bat ikasi behar zuten pertsonak erabili izan dute, eta erabiltzen jarraitzen dute. Baina azken bolada ho-

netan, antzeman dugu beste erabiltzaile mota bat ari dela atal honetara hurbiltzen. Jatorri ezberdineko publikoa eta hainbat hizkuntzatan hitz egiten duena da; hona bizitzera etorri diren pertsonak eta gure hizkuntzak ikasteko premia handia dutenak. Beraientzat, gure hizkuntza ofizialak ezagutzea bisatu bat da, eta hori jakin badakigu guk; horrengatik, bide hori errazteko asmoz, liburutegietatik hizkuntzak ikasteko material egokiak eskainiko dizkiegu.

Argi zegoen liburutegiek gaiari heldu behar geniola eta Munduko Paisaiak kanpainak ematen duen aukera aprobetxatuz, materialak erosi eta jarduerak antolatu ahal izango ditugu.

Helburua

Kanpaina honen helburua da gure hizkuntzak ikasten ari diren pertsonari laguntzea. Haiek integratzen lagundu nahi dugu, eta horretarako lehenengo pausoa hizkuntza ikastea da. Honek, bidea erraztuko die lana topatzeko, bere seme-alabak eskolaratzeko eta egunero konturatu gabe egiten dituzten hainbat eta hainbat jarduera aurrera eramateko. Hau da, oinarrikoak, aruntak diren ekintzak baina, bertako hizkuntzak ezagutu gabe, egunerokoan karga bihurtzen direnak.

Beraz, benetako beharrak aztertu ondoren, bi liburutegietan material berria erostea erabaki da. Etorrintzat erabilgarri diren hiztegiak, ikasteko metodoak, ikus-entzunezkoak, elkarrizketarako gidak, umeentzako materialak, etab. Honen guztiaren hautaketa jasota dago bi liburutegien artean egindako "Gure hizkuntzak ikasteko aukera... Liburutegian" irakurketa gidan.

Jarduerak eta emaitzak

Hizkuntza gunearen erabilera ezagutarazteko eta sustatzeko asmoz, bisita gidatuak antolatu izan ditugu. Horretarako etorkinen elkarteekin, helduen hezkuntza zentroekin eta euskaltegiekin harremanetan jarri izan gara. Bisita horiek liburutegiko funtzionamendua erakusteaz gain, Hizkuntza gunea ezagutaraztea dute helburu. Dagoeneko hainbat bisita hitzartua dugu.

Nahiz eta errealitate ezberdinetatik abiatu, erantzuna oso ona izaten ari da bi herrietan:

Eibarko liburutegian 2009. urtean hasi ginen esperientzia honekin, Kutxatik hizkuntzak ikasteko materiala erosteko diru-laguntza jaso genuenetik. Material horien maileguak





etengabe egin du gora. 2009an, beste hizkuntza batzuetan dauden materialen mailegua ia %7koa izan zen eta 2012an batz besteko hori ia %10era igo da.

Egia esan, urdu hizkuntzan dauzkagun metodo apurrak askotan mailegatu dira dagoeneko biztanle pakistandarren artean. Guk ditugun metodo eta elkarrizketa gidekin gaztelania ikastera animatu dira.

Hernaniko liburutegian berriz, 2012a izan da lehengo urtea. Beste liburutegien esperientzia (Eibarkoa barne) oso lagungarria izan da Hizkuntzaren atala berrantolatzeko eta materiala hautatzeko.

Irailetik hona, kontsultak eta bertara hurbiltzen den jende kopurua ugartzen ari dira. Euskara eta gaztelania ikasteko materialaren maileguaren igoera nabarmena izan da (%20 gehiago). Erabiltzaile ohikoenak, arabiera, errumaniera eta baita urdu hitz egiten dutenak ere izan dira.

Rakel Gonzalez
Hernaniko liburutegia
Eva Alberdi
Eibarko liburutegia

Liburutegi berriak sareko irakurketa klubetan

Lau liburutegi berri atxikitu dira Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuak koordinatzen dituen sareko irakurketa klubenez egitaspora. Durangok, Zallak, Zumarragak eta Eibarrek proiektua abian jarri zuten 16 liburutegiekin bat egin dute 2012an.

Lehendabiziko urtean izandako arazozen gainean mintzatu ziren bilera baten ondorioz, laguntza material ezberdina sortzea erabaki zen. Honetarako, teknologia berriei zerikusia duten tresnak erabili izan dira: *google calendar* edo *google docs*. Hau guztia, sareko irakurketa klubenez kudeaketa egokiagoa eta autonomoagoa lortzeko asmoz.

Bestalde, parte hartzen duten liburutegiek utzitako edota erositako aleekin eta Liburutegi Zerbitzutik ordaindutakoekin, 150tik gora sorta bildu dira. Beraz, erabilpen amankomuneko funts interesgarria eratu da, ekimen honen barruan egun ez dauden liburutegiek ere etekina atera diotelarik.

Honetaz gain, bere konpromisoa berretsiz, Ignacio Aldecoa Kultura Etxea sortutako aleen gordetegia izan da, eta horiek liburutegien arteko mailegu zerbitzuari esker herri ezberdinetara garraiatu dira.

Azkenik, gogoratu, 2013an ere, ekimen honetan parte hartu nahi duen liburutegi orok ekimen aukera izango duela, orduan luzatuko baita egitasmo honetara atxikitzeko eskaintza.

Euskadiko Irakurketa Publiko online sareko datuek azken urteetako joera positiboa eta mailakatua mantentzen dute.

2012. urtean 30.000tik gora erabiltzaile berri zenbatu dira -31.354 hain zuzen ere-; sareko kopuru osoa 515.668ra iritsi delarik.

Aleen kopuruari dagokionez, aipatu urtean 187.834 gehiago eman dira altan, orotara, lau milioiko zifra gaituz (4.049.361).


Halaber, Euskadiko Irakurketa Publiko Sareko eskaintzak OPAC bidezko 1.418.740 kontsulta jaso ditu, beste behin ere, urteroko maileguen zerbatekoa ia bi milioi ingurura iristea lortuz (1.957.886).

Bestalde, 2012an, 1.169 izenburu berri erantsi dira katalogoan, ondorioz, sareak 645.041rekin itxi du urtea.

Bukatzeko, aipatu beharra dago, Liburutegien Arteko Mailegu zerbitzuak-erabiltzaileen eta liburutegien artean onarpen handia duenak-, 50.710 ale garraiatu dituela gure lurraldeko puntu ezberdinen artean.

Azken finean, aipatu datuak, EIPS osatzen duten liburutegi zerbitzu guztien lan ona agerian uzten dute, beste behin ere.

ERABILTZAILEAK - USUARIOS



Helduentzako liburuak

Gaztelaniaz

El prisionero del cielo / Carlos Ruiz Zafón
En el país de la nube blanca / Sarah Lark
Dime quién soy / Julia Navarro

Euskaraz

Twist: izaki intermitenteak / Harkaitz Cano
Bilbao-New York-Bilbao / Kirmen Uribe
Martutene / Ramon Saizarbitoria

Haurrentzako liburuak

Gaztelaniaz

¡Esto es el colmo! / Jeff Kinney
La cruda realidad / Jeff Kinney
Sexto viaje al Reino de la Fantasía / Geronimo Stilton

Euskaraz

Txomin ospitalean / Liesbet Slegers
Kroko eta lagunak / Jo Lodge
Txomin eskolan / Liesbet Slegers

Helduentzako bideoak

Gaztelaniaz

La piel que habito
No habrá paz para los malvados 244
El hombre de al lado 209

Euskaraz

Izarren argia = Estrellas
80 egunean = (En 80 días)
Kutsidazu bidea, Ixabel

Haurrentzako bideoak

Gaztelaniaz

Hello Kitty y sus amigos
Erase una vez el cuerpo humano
Toopy y Binoo

Euskaraz

Triki, traka, tron
Ongi etorri Pupu eta Lore
Irrien lagunak

Helduentzako diskoak

Gaztelaniaz

Hacia lo salvaje / Amaral
En mi hambre mando yo / Marea
Al amanecer seguir soñando / Doctor Deseo

Euskaraz

Hodeien azpian / Ruper Ordorika
Ortze mugak begietan / Ken zazpi
Era / Zea Mays

Haurrentzako diskoak

Gaztelaniaz

Los pitufos te desean un cumpleaños feliz
Cuentos mágicos / Disney
Cuentos animalantes : cuentos para escuchar

Euskaraz

Ongi etorri Pupu eta Lore / Pirritx, Porrotx eta Mari Motots
Zazpikoloroa / Pirritx, Porrotx eta Mari Motots
Irrien lagunak / Pirritx, Porrotx eta Mari Motots

Euskadiko liburutegien web sozialeko guneak

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegiek Interneten dituzten gune guztiak biltzen ari gara: [Libsareak](#). Modu erraz eta erakargarri honekin liburutegiekin nola konektatu jakin dezakegu. Eta honekin batera, beren edukiak zein sare sozialetan publikatzen eta zabaltzen dituzten, bai interes orokorrekoak direnak baita udalerrri bakoitzari dagozkionak ere.



Sareko liburuzainaren erretiroa

2012ko azaroaren 29an hartu zuen erretiroa Maria Elena Eztenaga, Elgetako liburuzainak. Orduetik aurrera, udal liburutegiaren ardura Geaxi Ezpeletaren esku dago.

Maria Elena Eztenagarekin hitzegiteko aukera izan genuen eta egindako lanarengatik zorionak ematearekin batera bizitza berrirako zorterik hoberena opa genion. Hona hemen bere lanaren laburpen polit bat.

<http://vimeo.com/search?q=maria+elena+eztenaga>

“Irakurketa giden gaineko txostena” (Galtzagorri Elkartea)

Txosten honek EAEn gaur egun aurki daitezkeen irakurketa-gidak biltzen ditu; RLPE osatzen duten liburutegiek egindakoak batik bat.

Udal Liburutegiak Arartekoraren mapetan

[Arartekoaren mapak](#) geolokalizazio proiektu bat da eta herri-tarren, elkarten, herri-administrazioen eta Arartekoaren arteko lankidetzara barne hartzen ditu. [Idoia Llanosen](#) eskutik jasotako Arartekoaren gonbidapenari esker, Liburutegi Zerbitzuak parte hartu zuen herritarrentzako hain proiektu baliagarri eta interesgarri honetan. Hain zuzen ere, [Euskadiko Irakurketa Publikoko liburutegiak](#) aipatu mapetan geolokalizaturik egoteko beharreko informazioa bildu zuen.